| **Espediente:** | **3HI-066/14-P03-A**<br>**EIBAR**<br>Txonta Eremua aldatzen duen Eibarko Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren 4. Aldaketa. |
|---|---|

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

**ZIURTATZEN DUT:** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean, urtarrilaren 28an, 1/2015 bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuten, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

**"I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:**

Eibarko udalerriko "Txonta Eremua aldatzen duen Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa" izeneko espedienteari aldeko txostena ematea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea betetzen baitu eta ondorengo hauetara egokitzen baita: Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legeko lurralde-antolamenduko tresnak, eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdiak.

**II.- Uraren arloan:**

URA-Uraren Euskal Agentziak, 2015eko urtarrilaren 22an, aldeko txostena egin zuen, honako erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzapean:

1) 500 urteko errepika-denborako uholde-arriskua duten eremuetako eraikuntza berrietan, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudian jasotako baldintzatzaileak (400/2013 Errege Dekretua) hartu beharko dira kontuan. Horiek uholde-arriskua duten eremuetan gauzatu ahal diren erabileren mugei buruzkoak dira; batez ere, 53. artikuluan ezarritakoak

| **Expediente:** | **3HI-066/14-P03-A**<br>**EIBAR**<br>4ª Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar que modifica el Área de Txonta. |
|---|---|

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

**CERTIFICO**: que en la Sesión 1/2015 del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada el día 28 de enero, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguiente acuerdo:

**"I.- En materia de Ordenación del Territorio:**

Informar favorablemente el expediente de "4ª Modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana que modifica el área de Txonta" del municipio de Eibar, en lo que respecta al cumplimiento de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, a su adecuación a los instrumentos de Ordenación Territorial de la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco y a los aspectos señalados en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos Forales de sus Territorios Históricos.

**II.- En materia de Aguas:**

La Agencia Vasca del Agua-URA, en su informe emitido el 22 de enero de 2015, informa favorablemente de manera condicionada a que se dé cumplimiento a las siguientes determinaciones de carácter vinculante:

1) En las nuevas edificaciones ubicadas sobre zonas inundables por la avenida de 500 años se deberán tener en cuenta los condicionantes incluidos en la normativa del Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrológrafica del Cantábrico Oriental (Real Decreto 400/2013), referentes a las limitaciones a los usos en zonas inundables, en especial, lo referido a las prohibiciones relativas a garajes y

hartuko dira aintzat, hala nola garaje eta sotoei buruzko debekuak, eta edonolako materialak eta hondakinak pilatzea. Era berean, bizitegi-erabilera berriak adierazitako errepika-denborako uholde-arriskutik gorako kota batean gauzatuko dira.

sótanos y los acopios de materiales y residuos de todo tipo, recogidos en el art. 53. Así mismo, los nuevos usos residenciales se deberán disponer a una cota no alcanzable por la avenida señalada.

2) Garapen berriek saneamendu eta horniduraren azpiegiturak nahikoak eta egokiak direla bermatuta izan beharko dute. Horretarako, espedientea behin betiko onesteko dokumentuak erakunde kudeatzailearen txostena (Gipuzkoako Ur Kontsortzioa) ere izan beharko du, garapen horiek hornidura eta saneamenduaren beren sisteman sartuko direla ziurtatzeko. Agentzia horrek aurreko txostenean ere eskatu zuen alderdi hori, eta ez da aurkeztu.

2) Los nuevos desarrollos deberán tener garantizada la suficiencia y adecuación de las infraestructuras de saneamiento y abastecimiento existentes. Por ello, el documento de aprobación definitiva del expediente deberá ir acompañado de un informe de la entidad gestora (Consorcio de Aguas de Gipuzkoa) certificando la incorporación de estos desarrollos a su sistema de abastecimiento y saneamiento, extremo que ya había sido exigido en el informe previo de esta Agencia y no ha sido aportado.

**III.** Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari ondokoek egindako txostenak bidaltzea: Etxebizitza Sailburuordetza (I. eranskina) eta URA-Uraren Euskal Agentzia (II. eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz.”

**III.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por la Viceconsejería de Vivienda (Anexo I) y por URA. Agencia Vasca del Agua (Anexo II), que se acompañan a la presente certificación.”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2015eko urtarrilaren 28an.

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 28 de enero de 2015.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEA
-PLENOA-

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga